

BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Sortu dugun aplikazioa 40 urtetik beherako eta bakarrik bidaiatzen duten emakumeentzat da, helburu turistikoa Espainia dutenentzat. Horretaz gainera, klase ertain eta altuko emakumeei zuzenduta dago, frekuentziaz bidaiatzeko dirua dutenei. Izan ere, banakako bidaietan espezializatutako agentzietako bezeroen % 70 emakumeak dira, zerbitzu espezializatueta jotzen ez duten guztiak kontuan hartu gabe. Dauden hizkuntzei dagokienez, erabiltzaileek aplikazioa bi hizkuntzatan erabili ahal izango dutela erabaki dugu, gaztelania eta ingelesa. Izan ere, hauek dira gure erabiltzaileek gehien erabiliko dituzten hizkuntzak. Hala ere, gustatuko litzaiguke proiektu hau mundu mailan zabaltzea eta helmuga anitzagoak eskaintzea (Londres, Paris, Erroma, etab.). Erabiltzaile horiek honako ezaugarri hauek dituzte: lanean edo turismoan maiz bidaiatzen duten emakumeak dira, bakarrik bidaiatzerakoan segurtasuna eta ongizatea lehenetsiko dituen alternatiba bat bilatzen dutenak, eta Interneten moldatzen dakiten emakumeak, gure informazio-kanala aplikazio baten bidez izango baita.